

pafoako *Euskeraren Adiskideak* deitzen dan batzarak gertu ta eragin ditu. Euskaltzaindiak poz-pozik entzun ditu beñi abek.

Aita Intzak berak dio: euskeraren zabalkunderako, naiz trenetan, naiz bide ta jende edo oste aundia bil-tzen dan tokitan alako orma-idazki edo letreroak ipiñi bear lirakela: *Euskaldunai, euskeraz: Euskaldunak euskaldunakin euskeraz itz egin* bezate edo era ontako idazkien bat. Ez du Euskaltzaindiak onetzaz ezer erabaki.

Aita Intzak berak dio: Euskal-Ikastoletarako, ta abetan euskeraz itz egiten dutenen saritzat alako do-mina edo edergailu bat aukeratu bear litzakela. Eus-kaltzaindiak erabaki du: *Euskaltzaleai* onetzaz zer-bait esatea.

IV.—Afaiozko A. Pastorek biali dituen euskal-itzak Euskaltzaindiak pozik jaso ditu. Aita Intzaren bitartez datoz.

V.—Gipuzkoako Aldundiak euskal arazo baterako eskatzen digun *batzordeko* Intzagarai izendatu degu.

VI.—Diruzai Altube jaunak irakuri dizkigu Euskal-tzaindiko diru artu-emanak ta onetsi ditugu.

Ta beste gairik izan ez da, otoiñtez amaitu degu batzaraldia.

Donostian, Eusko-Ikaskuntzaren gela nagusian, 1931-ko Otsailaren 26-an.

Euskaltzain jaun abek bildu dira: Azkue maipuru, Urkijo, Olabide, Intzagarai, Altube, Intza, Lakonbe ta urgazletatik Ormaetxea jauna. Otoiñtez asi da.

I.—Intzagarai jaunak Aritmetikarako itz batzuek dakarzki, an emen bilduak, Euskaltzaindiak zein eta

zein onesten dituen jakin nairik, gero Aritmetikan itz oiek erabiltzeko. Euskaltzaindiak lan ontan batzaraldi -asti guzia jardun du.

Otoitzez amaitu da batzaraldia.

Donostian, Eusko-Ikaskuntzaren gela nagusian, 1931-ko Otsailaren 27-an.

Batzaraldira euskaltzain abek datoz : Azkue maipuru, Urkijo, Olabide, Intzagarai, Altube, Intza, Lakonbe, Etxegarai eta urgazletatik Ormaetxea jauna. Otoitzez asi da.

I.—Intzagarai jaunari eman zaizkio Eusko-Ikaskuntzako *Ikastol-Batzorderako* Aritmetikan erabili litezken itzen zerenda. Ez ditu ordea Euskaltzaindiak bere-berekotzat artzen: ongi daudela besterik ez du esaten.

II.—Lakonbe jaunak, orain dirala ogei urte bildutako Aldude-ko kontu batzuek irakurri dizkigu.

III.—Etxegarai jaunak bere lan bat dakar: *Ara* zer dan *toponimian* erakutsirik: batzuetan *planicie*, bestetan *agua corriente*. Eredutzat izen asko aitatu ditu.

IV.—Azkue jaunak *modismo* batzuek irakurri dizkigu.

V. — Kirikiñoren saria epaitzeko, Euskaltzaindi-ordeko epaile bat bear dala-ta, Intzagarai aukeratu degu.

Ta beste gairik izan ez da otoitzez amaitu da batzaraldia.

Iruña-n, Aldundi-Jauregian, 1931-ko Joñailaren 29-an.

Euskaltzain jaun abek bildu dira : Azkue maipuru, Kanpion, Olabide, Intzagarai, Lakonbe, Etxegarai,